



# **Foru Dekretu Araua, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen dituen. Proiektuaren txosten ekonomikoa.**

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren zergabilketan .....ren ...(e)ko ../2011 Foru Dekretu Arauaren Proiektuak, zeinaren helburua baita Estatuako araudian sartutako aldaketak Gipuzkoako zerga araudira ekartzea arau substantibo eta formal berberak aplikatu daitezkeen.

Abenduaren 22ko 39/2010 Legeak, Estatuaren 2011rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, zerga arloko hainbat aldaketa jasotzen ditu Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari, Balio Erantsiaren gaineko Zergari eta zerga bereziei dagokienez.

Barne antolamendua Batasuneko jurisprudentziara egokitze aldera, aldaketak sartu dira Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan. Horrela, parekaturik geratzen dira Espainian egoiliar diren sozietate filialek Europar Batasunean helbideratutako sozietate nagusiei edo beren establezimendu iraunkorrei banatutako dibidenduak salbuetsita geratzeko exijitutako partaidetza portzentajea eta Sozietateen gaineko Zergaren araudiak dibidenduen ordainketan barruko zergapetze bikoitza saihesteko kenkaria %100ean aplikatzeari dagokionez exijitzen den partaidetza portzentajea.



Aldaketa teknikoak sartu dira, orobat, Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Tabako Laboreen gaineko Zergan eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezian, hiru kasuotan barruko antolamendua Europar Batasuneko araudira egokitu beharra dela-eta.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Ituna onartzen duenak, 21., 26. eta 33. artikuluetan hurrenez hurren jasotzen duenez, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta zerga bereziak tributu itunduak dira, eta zerga horiei lurralde historikoetako erakunde eskudunek une bakoitzean Estatuak ezarritako funtsezko arau eta arau formal berberak aplikatu behar zaizkie. Nolanahi, atzerrian egoitza duten pertsona edo entitateek Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratuta dituzten establezimendu iraunkorren Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokionez, haiei Sozietateen gaineko Zergaren araudi autonomoa aplikatuko zaie.

Horrek beharrezko egiten du aurrekontuen lege horretan sartutako aldaketak Gipuzkoako zerga araudian jasotzea.

Kasu honetan, helburua izango litzateke kalkulatzeko zenbatean aldatuko litzatekeen zerga-bilketa indarrean dagoen araudiaren ordeztu arau proiektuan jasota dauden xedapen berriak aplikatuko balira (Hauek aldatuko litzateke: apirilaren 26ko 2/1999 Foru Araua, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena; abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretua, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duena; eta, azkenik, martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretua, Gipuzkoako zerga araudia zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean jasotako xedapenetara egokitzekoa. Hortaz, txosten honen xedea ez da



proiektuan sartzen diren neurriak termino absolututan ebaluatzea, neurri horiek hartu eta indarrean daudenekin alderatzea baizik.

Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga:

Zabaldu egiten da egoiliar diren sozietate filialek Europar Batasunean helbideratuta dituzten sozietate nagusiei banatutako mozkinak salbuesteko aplikazio eremua, sozietate bat sozietate nagusitzat hartzeko baldintzak arintzen direlako: zeharkako partaidetzaren erreferentzia sartzen da, eta %20tik %5era murrizten da exijitutako partaidetza.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga:

Alderdi jakin batzuk aldatzen dira inportazioarekin, gas banaketarekin, elektrizitatearekin, eta hotz-beroarekin lotuta.

Zerga bereziak:

Zenbait kontzeptu aldatzen dira Tabako Laboreen gaineko Zergan eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezian.

Kontuan izan behar dugu Proiektuak proposatzen dituen aldaketak zeharo teknikoak direla, eta, beraz, oso eragin ekonomiko txikia izango dutela Gipuzkoako aurrekontuetan, haien xede bakarra baita onartuta dauden arau batzuetan hobekuntzak sartzea eta ordenamendu juridikoari zehaztasun normatibo handiagoa ematea.



## **Genero eraginaren txostenaren oinarriak eta xedea.**

Euskal Autonomia Erkidegoan onartuta dagoen otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, gizon eta emakumeen berdintasunerakoak, 6. artikuluan dio foru administrazioei dagokiela foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioaren arabera. Era berean, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezartzen du ezen foru arauen aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak egiteko prozeduran, nahitaez, genero eraginari buruzko txosten bat aurkeztu beharko dela eranskin gisa.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 21., 26. eta 33. artikuluetan hurrenez hurren jasotzen du ezen Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta zerga bereziak tributu itunduak direla, eta zerga horiei lurralde historikoetako erakunde eskudunek une bakoitzean Estatuak ezarritako funtsezko arau eta arau formal berberak aplikatu behar zaizkiela. Nolanahi, atzerrian egoitza duten pertsona edo entitateek Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratuta dituzten establezimendu iraunkorren Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari dagokionez, haiei Sozietateen gaineko Zergaren araudi autonomoa aplikatuko zaie.

Hori dela-eta, ezinbestekoa da Gipuzkoako zerga araudira ekartzea Estatuaren 2011rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 22ko 39/2010 Legean jasota dauden aldaketak, halako moduz non Gipuzkoako Foru Aldundiari ez zaion tarterik uzten bere politika propioak ezartzeko, eta, hortaz, aldaketa horiek nekez baloratu daitezke genero eraginaren ikuspegitik.



Honenbestez, kasu honetan ezin da eman Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 70. artikuluan aipatzen duen irizpena.

Donostia, 2011ko urtarrilaren 25a

## AZTERLANETAKO ATALBURUA

### ONIRITZIA

### ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN ZERBITZUBURUA